

IDENTIFIKATUTAKO KOLEKTIBOA.**ARRISKU PROFILEAN ERAGIN NABARMENA DUTEN JARDUERA
PROFESIONALAK BURUTZEN DITUZTEN LANGILE KATEGORIEN
DESKRIBAPENA, ETA IDENTIFIKATUTAKO PERTSONA KOPURUA.**

“Identifikatutako kolektiboa” zuhurtziazko araudi esparruaren oinarria da; finantza sektoreko informazio eta gardentasun eskakizun, zuzentarau eta gobernantza prozedura asko daude horretara berariaz zuzenduta.

Kutxabank Taldeak erakundearen arrisku profilean eragin nabaria izan dezakeen kolektiboa identifikatzeko barne prozedura bat burutzen du aldian-aldian, 604/2014 EDren arabera. Prozedura hori urtero osatzen da, edo, aldaketa handiak dauden bakoitzean, bai kolektiboari, baita arrisku profilari dagokionez ere.

Banku talde eta erakundearen arrisku profila honako elementuen arteko harremanaren arabera da:

- ✓ Burutzen diren jardueren berezko magnitudea, izaera eta konplexutasuna.
- ✓ Arrisku horien kudeaketa eta kontrolera bideratutako azpiegitura.
- ✓ Behar izatekotan, arrisku horien ondorioz izan daitezkeen galerei aurre egiteko baliabide propioen oinarria.

Aurrekoaren arabera, Kutxabank SA erakundearen identifikatutako kolektiboa, 2019-12-31n indarrean zegoena, 38 pertsonaz osatua dago. Horietatik:

- i. 16 Administrazio Kontseiluko kideak dira, eta horietako hiruk funtzio exekutiboak dituzte.
- ii. 22 pertsonak osatzen dute zuzendaritza taldea; kontrol funtzioak eta arrisku hartzaileenak hartzen dira barne:
 - Goi Zuzendaritza talde osoa
 - Kontrol funtzioen artean, arloko zuzendaritzak daude, hala nola Barne Ikuskaritza, Araudia Betearaztea eta Taldearen Kontrola, Arriskuaren Kontrol Globala, Kreditu Arriskua eta Finantza Zuzendaritza.
 - Arrisku hartzaileen artean, Erakundearen barruko funtsezko funtzio korporatibo eta banku-negoziaren ildoaren arduradunak daude, araudi esparruaren irizpide kualitatibo eta kuantitatiboak aplikatuz.